



## Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) gazteen kalitatezko enplegua sustatzeko 17 proposamen aurkeztu ditu

- "Gazteontzako enplegu planak egiteko **GAZTEON ERREZETAK**" dokumentuak gazteen lan prekarietatearekin bukatzea eta hauen lan eskubideak bultzatzea du helburu
- Errezeta liburu formatuan aurkeztua, **azken hiru urteetan administrazioek bultzaturiko gazte enplegu planen azterketa egin ondoren ikusi diren hutsuneak betetzeko ideiak emateko sortu da**
- **Dokumentua ekarpenei irekia dago** eta EGK-ko ordezkariak talde politiko, sindikatu eta gizarte eragileekin bilduko dira ideia berriak jaso eta elkarren arteko balorazioa egiteko; beste gazteen ekarpenak ere espero dira

Vitoria-Gasteiz, 2015eko ekainaren 15a. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) "gazteontzako enplegu planak egiteko **GAZTEON ERREZETAK**" dokumentua aurkeztu du gaur. Plataformaren presidentea den Itsaso Anduezak azaldu duenez "**gazteen lan prekarietateari aurre egiteko 17 proposamenez osaturiko dokumentua da**, kalitatezko enplegua eta gazteen lan eskubideak bultzatu nahi dituen". Hau osatzeko, EGK-ko 'gazteria eta enplegua' lan taldeak urtebete baino gehiago behar izan du eta dinamika hauetan parte hartu duten gazte batzuk ere agerraldian izan dira, besteak beste, Comisiones Obreras Gazteak, Junior Enpresen Euskal Federazioa, Euskadiko Ezkerraren Gazteak eta Ekintza Katoliko Orokorreko ordezkariak, gazte ez elkartuekin batera.

Anduezaren hitzetan, "**azken hiru urteetan administrazioek bultzaturiko gazte enplegu planen azterketa egin ondoren ikusi diren hutsuneak betetzeko ideiak emateko sortu da**". Liburu honek aurretik egindako ekimenen ibilbidea osatzen du: gazteen emigrazioaren inguruko "SosGazteak", gazte ekintzailetzaren gaineko "Joven, ¿empresas o empierdes" eta prekarioka.org proiektua.



GAZTEEN ERREZETAK dokumentua bi zatitan banatzen da. Alde batetik, gazteei zuzenduriko enplegu planak garatzeko kontuan hartu behar diren gako nagusiak zehazten dira, hau da, gazteen enplegu plan bat “sukaldatzeko” kontuan izan behar diren puntuak adierazten dira: helburuak, koordinazioa, emaitzen argitaratzea, neurrien hartzaileen profila, eta abar.

**Bigarren zatian, aldiz, gazteek adostutako hainbat proposamen berri zehazten dira, politika publikoen bitartez gazteen enplegu duina sustatzeko beharrezkoak direla deritzotenak.\***

### **EKARPENEKIN OSATZEKO DOKUMENTUA IREKIA**

Gazte elkarten plataformak oraingoan aurkeztu duen **errezeta liburua** **abiapuntu bat besterik ez da, ekarpenei irekia dagoen dokumentu bat** eta, beraz, gazteren batek edo beste inork gazteen kalitatezko enplegua sustatzeko errezeta gehiago ezagutuz gero, EGKrekin partekatzeko gonbidapena luzatu egin da. Honen harira, **EGK-k** administrazio eta erakundeetako arduradunekin, talde politikoekin, sindikatu eta gizarte eragileekin **bilduko da datozen hilabeteetan dokumentu hau aurkeztu, ideia berriak jaso eta entitate bakoitzaren zereginetan nola txertatu daitekeen baloratzeko.**

\*Ohar honi atxikituriko dokumentuan, neurri bakoitzaren azalpen laburra aurkituko duzue.

+info eta elkarrizketak:  
688 675932  
Iñaki Goikoetxea Arrufat  
EGK-ko komunikazioa